

Ingelesezkoa Nafarroako eredu nagusia bihurtu nahi dute

Hezkuntza Departamentuak gaztelania-ingeles eredu sustatuko duela iragarri du

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

Ingelesa eta gaztelania nahastuko duen eredu Nafarroako etorkizuneko eredu izatea nahi du Hezkuntza Departamentuak, eta bultzada eta babes handia iragarri du datozen ikasturteetarako: irakasle eta ikasleentzat, prestakuntza eta trebatze ikastaroak atzerrian, eta ikastetxeentzat, baliabide berriak. Helburua da atzerriko hizkuntzetako trebakuntza irakas-kuntza sistemaren oinarrietako bat izatea. Baliteke, beraz, Nafarroako egungo hezkuntza ereduaren arteko oreka datozen ikasturteetan iraultzea.

Ikastetxe bakoitzeko irakasleen klaustruak eta eskola kontseiluak hautatzen dute eskaini beharreko hizkuntza eredu, baina garbi dago Carlos Perez-Nievasen (CDN) departamentuak eredu berria sustatu nahi duela: gaztelania-ingelesa. «Ez da orain dugun British eredu izango», azaldu zuen atzo; «guk hezkuntzen arteko elkarbizitza hobesten dugulako. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, ez da [British] hura bezain zorrotza izango, baina hemengo gizartearen beharrei hobeki erantzungo die».

«Hizkuntzen arteko elkarbizitza» hori ez da, hala ere, orekatua izango. Euskararen presentzia, esate baterako, hautazko irakasgai izatera mugatuko da.

PROIEKTU GARRANTZITSUENA. Ingeleseko irakaskuntza zabaltzea izan zen UPN eta CDN alderdien hauteskunde kanpainako agindueta-ko bat, eta Perez-Nievasen departamentuaren proiekturik garrantzitsuena da. Xedea datorren urtean eskaintzea da, eta, horretarako, lau ikastetxe aukeratu dituzte, proba gisa: Noaingo San Migel, Burlatako Hilarion Eslava, Cintruengoko Otero de Navascues eta Beriaingo ikastetxe publikoa.

Ikastetxe haietako erakundeek eredu hori aukeratuko balute, ikastorduen erdiak gaztelaniaz izango lirarteke, eta ingelesez emango litzukete Naturgunearen Ezagutza, Matematika, Plastika eta Dramatizazioa. Lehen urtean, hau da, 2008-2009 ikasturtean, haur hezkuntzaren lehen mailan

«Ez da oraingo British eredu izango; hemengo gizartearen beharrei hobeto erantzungo diegu»

«Helburua ikasleek hizkuntza gaitasuna lortzea da, oraingo ereduak hori ez delako lortzen»

CARLOS PEREZ-NIEVAS
HEZKUNTZA KONTSEILARIA



Ingelesa euskararen gainetik lehenesten duten ereduaren aurka Iruñean eginiko elkarretaratzea, artxiboko irudian. J. MANTEROLA/ASP

ezarriko nahi dute eredu. Ondorioz, ingelesezko eskaintza hiru-koiztu egingo litzateke gainontzeko ereduak alderatuz gero. «Helburua ikasleek hizkuntza gaitasuna lortzea da», esan zuen atzo kontseilariak, «oraingo ereduak hori ez delako lortzen».

Maila bakoitzari dagokion gutxienezko hizkuntza gaitasuna ere zehaztua dauka Hezkuntza Departamentuak. Lehen hezkuntzan, A-1 profila bete beharko dute ikasleek, hau da, oinarriko erabiltzaileari dagokion maila; DBHn, berriz, ohiko erabiltzaileari dagokiona. Batxilergoan, B-1 kategoriako hizkuntza gaitasuna lortzea da helburua. Aurten 200 ikasle prest eduki nahi ditu departamentuak, beharrei erantzuteko. Horretarako, irakasleentzako prestakuntza ikastaroak gehituko dira, eta hiru hilabetezko programak aurreikusita daude. Ikasleentzako, berriz, aukera ugari: 500 ikaslerentzako hilabetezko egonaldiak atzerrian; DBHko-entzat, bi hilabetezko egonaldiak...

Ikastetxeek matrikulazio epea baino lehen egin behar dute hautaketa.

EAE ANV
www.eae-anv.org

EKITALDI NAZIONALA BILBO

LA CASILLA • 17.30etan

Autobusak herri guztietan!

bihar

IGANDEA

D eredu ezarriko dute datorren ikasturtean Noainen eta Aranguren

A. B.
Iruñea

Departamentuak gaztelania eta ingelesa bultzatuko ditu hasieratik, baina ez du baztertu ingelesaren partez frantsesa edo alemana ere eskaintzea hainbat ikastetxetan. Eta Perez-Nievas kontseilariak atek zabalik utzi nahi izan ditu D ereduaren ere antzeko proposamenak onartzeko. «D ereduaren arazoa korapilatzen da, bi murgiltze izango liratekeelako ikaslearentzat, euskaraz eta ingelesez, baina aztergezake aukera». Proposamena, kasu honetan, D eredu-ko ikastetxeek egin beharko luke-

tela esan du departamentu buruak. Hau da, ekimena ez dela Administrazioetik sortuko. Eta ingeleseuskaraz eredu bat mahai gainean jarriko balitz D eredu osotik birplanteatu beharko litzatekeela. «D ereduak isolamendua hautatu du, ereduaren arteko banaketa, eta hori guztia berriro aztertu beharko litzateke», ziurtatu zuen atzo.

Horren haritik, ikastetxe berean hizkuntza eredu bateko baino gehiagoko aukera sustatu nahi duela iragarri zuen kontseilariak. «Hori da interesgarriena. Horregatik, ez ditugu aukerak aldeaz aurretik baztertuko. Oinarri hori nahi

dugu hurrengo urteetarako, baita D eredurako ere».

NOAIN ETA ARANGURENEN, D EREDUA. Kontseilariak, atzoko prentsaurreko berean, D eredu Noain eta Arangurengo ikastetxe publikoetan datorren ikasturtean eskainiko dutela iragarri zuen. «Ez dugu Nafarroako hizkuntza errealitatea ahazten», esan zuen, «eta bertako eskaerari erantzun egin nahi diogu». Hain zuzen ere, Noaingo adibidea bereziki azpimarratzekoa zela esan zuen. «Bi eredu berri izango dira datorren urtean, eta erakutsiko dugu ez direla kontrajarriak».